



## Baserritar Jantzien V. Lehiaketa

2017ko San Tomas egunean (abenduak 21) Donostia Festak eta GERO AXULAR dantza-taldeak elkarlanean, San Tomas eguneko baserritar-jantzien lehiaketaren lehen edizioa antolatu genuen Gipuzkoa Plazan, **eta aurten V. edizioa ospatuko dugu.**

Lehiaketaren helburua baserritarrek lanerako, ekitaldietara joateko edon egun berezietan kalera jaisteko erabiltzen zituzten jantzien edertasuna eta aniztasuna erakustea da, eta herritarrak animatzea egun pasa ederra egin dezaten jantzi horiek soinean dituztela, betiere, jatorrizko diseinuak eta erabilerak arretaz eta begirunez zainduta.

Era berean, tradiziotik datorkigun ondarea berreskuratu eta aldarrikatu ere egin nahi da, gogoraraziz jantzi tradizional horiek Euskal Herri osoko eta, bereziki, Donostiako eta Donostiarren historiaren eta nortasun kulturalaren ikurretako bat ere badirela gogoraraziz.

Lehiaketa goizeko 11:15ean hasiko da, Donostiako Gero Axular taldeko dantzariak interpretatutako dantza tradizionalen emanaldiarekin. Ondoren, parte-hartzaile guztiak desfilea egingo dute, Bulebarrean egongo diren epaimahaikideei eta ikusle beren jantzia erakusteko.

Epaimahaia Antolakuntza Batzordeak gonbidatutako pertsonak osatuko dute. Horien artean, Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarreko lehendakaria, Xabier Mendizabal jauna, eta jantzi tradizionalen diseinatzailea, Ane Martinez andrea, izango ditugu. **Epaimahaia epai apelaezina emango du.**

Kategoria hauetan parte hartu ahalko da:

- **Haurren kategoria, nesken jantzia:** 5 eta 12 urte artean. **Izena eman**
- **Haurren kategoria, mutilen jantzia:** 5 eta 12 urte artean. **Izena eman**
- **Gazte eta helduen kategoria, emakumezkoen jantzia:** 13 urtetik aurrera. **Izena eman**
- **Gazte eta helduen kategoria, gizonezkoen jantzia:** 13 urtetik aurrera. **Izena eman**
- **Taldeak:** gutxienez 3 kidek eta, gehienez, 5 kidek osatua egongo da, eta gutxienez heldu bat izango du (+13 urte). **Izena eman**

**Aurten, berritasun gisa, Familia kategoria Talde kategoria bihurtu dugu, familia taldeei ez ezik, lagun/kuadrila taldeei ere jantziaren erabilerara sustatzeko helburuarekin.**



# GERO AXULAR

Hauek dira kontuan hartuko diren alderdiak: jantziaren diseinua, materialak, oinetakoak, osagarriak... Bereziki hartuko da aintzat jantziaren egokitasuna, hau da, San Tomas eta antzeko jaietan tradizioz eraman izan diren jantziekin bat etortzea.

<https://dotorejantzi.geroaxular.eus/es/c%C3%B3mo-vestirse.html>

Parte-hartzaileek izena emateko aukera izango dute abenduaren 1ko 12:00etatik abenduaren 20ko 12:00ak arte, [www.dotorejantzi.geroaxular.eus](http://www.dotorejantzi.geroaxular.eus) webgunean. Lehiaketan parte hartu nahi dutenek formulario bat bete beharko dute, eta ondoren, antolakuntzaren mezu bat jasoko dute, izen-ematea berresteko.

Lehiaketa antolatzeko, tokiko merkataritzaren eta hainbat erakunderen laguntza izan dugu, laguntza ekonomikoa emanez eta euskal kulturaren zaintza eta kontserbazioa sustatzen duten ekitaldien aldeko apustua eginez.

**Aurten arte kolaboratzaile guztiak Donostiakoak izan dira, baina aurten horietako batzuk Tolosakoak, Zarautzekoak, Getariakoak edo Errenteriakoak dira.**

Laguntzaileak / Colaboradores	
Academia de confección, Asun Dominguez	Donostia
Almacenes La Bretxa	Donostia
Aquarium	Donostia
Balenciaga Museoa	Getaria
Club Diarco	Donostia
Diario Vasco	
Eder Centro de Labores	Donostia
Eskularen Etxea	Donostia
Gama Academia Moda	Donostia
Gipuzkoa Basket	Donostia
Idoia Odriozola, baserritar jantziak	Donostia
Jantziaren Zentroa	Errenteria
Josi'ta Josi	Donostia
Kilo Gran vía	Donostia
Oihalak Kiloka	Donostia
La Perla Talasoterapia	Donostia
Mendizabal Euskal Jantziak	Zarautz
Mercería Karmele	Tolosa
Merceria La Rueca	Donostia
Muchas telas	Donostia
Noticias de Gipuzkoa	
Peluquería Art Estilistas	Donostia
Real Sociedad Fundazioa	



# GERO AXULAR

San Telmo Museoa	Donostia
Txuri-Urdin Hockey Hielo	Donostia

**Informazio gehiago nahi izanez gero edo elkarrizketak egiteko:**

**Gurutze Telleria**

**616296307**